

# ZER


BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\*

130n. Zenbakia

Bag  
Ekai  
19



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAIA  
LAGUNTZAILLE



ONAINDIA'tar SANTI  
- LEKAIDE ZINTZOA  
- ABERTZALE BEROA  
- IDAZLE UGARIA  
- ELERTI-ZALEA

ZORNOTZA'K ONDO IRABAZITAKO  
OMENALDIA EGIN DAUTSO  
(1989-5-13)

**EUSKALERRIAN EUSKERAZ**

**EUSKERAZALEAK**

**1.989**

**UDAKO IKASTAROA**

**BIZKAIERAZ**

**IRU MAILLA**

**EGUNAK : ASTELENETIK EGUENARTE**  
**- GARRAGARRILLAN -**

**ORDUAK : ARRATSALDEKO 5'etatik - 7'etara**  
**EDO 7'etatik - 9'etara**

**ORDAÑA : 3.000 peseta.**

**IZENA EMOTOKO TOKIA : EUSKERAZALEAK**

COLON DE LARREATEGI, 14 - 2

BILBO.

URRUTIZKIÑA 423.53.22

**CURSILLO DE EUSKERA VIZCAINO. 3 NIVELES**

**DIAS : LUNES A JUEVES - JULIO 1.987**

**HORAS : 5 a 7 o 7 a 9**

**PRECIO : 3.000 pesetas.**

**INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK**

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.

TELEFONO 423.53.22

# EUSKEREA IKASTEN

## ASTAROAK ETA IKASTURTEAK

Udan ta datorren urtean, ikasturteetan naiz ikasturteetan kideko izateko deien sasoian gagoz. Zenbakietan argitaratzen dogu EUSKERAZALEAK orretaregitean dauan deia. Udako ikastaroa egiteko da eta mailla eskintzen dira. Ikasleak bear dan besteko aritasunaz izan ezkerot talde bitan lan egiteko: 5'eta-7'retara bata eta 7'retatik 9'retara bestea.

Egokiak izango dira olako ikastaroak urte-barruan matematika-legeak ikasi dabezenentzat naiz euskeraz berregiteko erreztasunik oraindiño ez daukenentzat.

## TIA

Askori entzuten dautsagu olakoetarako ez daukela erik. Bear ba'da obeto esana litzake, ori baiño garrantziago dauken gauzai eskintzen dautsela denporea. Erantzirik ez dauken gauzetarako, beti geratzen gara i barik.

Baiña euskera ikasteari eta euskeraz berba egiteari eskaldun dan eta izan nai dauan batek emon bear tson garrantzia emoten ba'dautsagu, astia aurkituko gu.

## KERAK

Ordu askeak guztientzat bardiñak ez diralako, orretatik eskintzen dira aukera ez bardiñak: Batzutan etxerrian illebete edo amabosta euskera utsean biziteko aukerea izaten da, beste batzutan baserri baten udaldia o illeren baten euskeraz biziten igaroteko aukerea, etarako Jaurlaritzaren laguntzak be eskintzen dirala.

Eta ikasturtearen barruan be antzeko aukerak, izaten a. Benetako guraria daukanak ezin esan al izango i ez daukala euskera ikasteko aukerarik.

## LOTSEA

Euskerea eta edozein izkuntza ikasteko oztopo aundi bat lotsea izaten da. Onetan ez gara guztiak bardiñak, batzuk lotsatiagoak izaten dira beste batzuk baiño.

Izkuntzea ez dakianak, sarritan, gauzak okerretara esaten dauz eta gauza oso barregarriak esan be. Eta entzuleak be gertu egoten dira barre egiteko ta barre orrek lotsea ugaritu egiten dau.

Barruko griña ori azpiratu egin bear da ba, benetako euskera-zaletasuna nagusi izan daiten.

## ALEGIÑA

Eroapena ta alegiña bear-bearrekoak dira izkuntzak ikasteko: Askot dira asten diranak eta gitxi euskerea naiz beste edozein izkuntza ondo eskuratzen dabenak.

Alegiña egin bear da gramatika ikasteko, ariketak egiteko eta batez egunerik egunera ikasi dana berbaz erabilteko. Gaiñera uts-egiteak zuzentzen alegindu, zergaitia beti itauntzen dala.

Orrean astiro-astiro eta pozez, egunerik egunera euskerearen barrura sartzen eta euskaldunago izaten joango gara.

## MINTZABIDEA

*Euskerazaleak* dauken bidea arlo onetan oso egokia dala uste dogu.

Izkuntza ikasteko berba egin bear da eta Bizkai'ko euskerea ikasi ezkerot edozein erri naiz etxetan izango dogu aukerea berba egiteko. Errez ulertuko dauskue egiten doguna eta errez ulertuko dautsegu, astiro eta ondo ebagita berba egiten ba-dauskue.

Egia da erriak laburpen asko eta aldakuntza asko egiten dauzala baiña olakoak zergaitik diran ikasi ezkerot, ez da gauza gaitxa izaten alkar-ulertzea. Ikasi dagigun euskerea eta berba egin dagigun, dakigun neurrian, euskeraz.

## EDONoz ETA EDONON

Guztiok ezagutzen dogu Paulin Solozabal olerkari ospatsua eta berak idatzitako bederlatzi olerki-liburuetan zer bait irakurri be egin dogu.

Paulin pozik eta gertu egoten da aukera datorkonean bere olerkiak abesteko: Batzarretan, omenaldietan, ezkontzetan, lenengo jaunatzeetan, adiskideen jatorduetan.

Gaurko ZER onetan bere lau ekinaldi eskintzen dautseguz irakurleai: Lenengoa Eleiz-arduradun batzuren batzarrean,

Mungia'ko gure etxean bazkaltzeko jesarri-aurrean. Bigarrena inguruko abadeak etxe onetara lenengoz urreratu ziranean. etxe barriari asierea emoteko gurariaz, janari zan bildotsa gai dala. Eta irugarrena Aita Santiri Zornotza'k egin eutsan omenaldian abesteko gertatu ebazanak.

Eskerrak Paulin'eri bere lanagaitik eta aukerea irakurleai bere olerkiak irakurri dagiezan.

PREs TU

### (Eleiz-Arduradunen batzarrean)

Ongi etorri jaun autatuak,  
zuen etxe onetara,  
orma barriak... atepak zabal  
daukaz zuen omenera;  
gizon prestuak, alan, bear dau  
adiskidetasunera,  
aurki barriari oiñak kokatuz  
egokera ederrera.

Gure seigarren baillera onek  
ba-dituz gizon argiak,  
oroz goitikan bear dan legez

seme leial langilleak;  
ekin ta jarrai diarduzue  
urratzen jokabidiak,  
argi barriak argitu daizan  
kristauen burubidiak

Kristau erriak izan bear dau  
lur ontan gatz ta argia,  
berau dalako mundu baltzean  
Maisuaren irudia;  
egitekorik neketsuena  
gizonak argitutia,

zorioneko maillara doa  
ortan doan izerdia.

Zeru altutik begira dago  
lur illunaren sorlea,  
jendea dakus arrokerizko  
puts ustelez betea;  
mundo orretan zabaldu bear  
egiaren txinpartea,  
burruka ortan agertuten da  
apaiz trebien alea.

BILDO TSA

### (Etxe barriari, adiskide-arteko bazkarian)

Mendi orleian bildots zuria  
saltari dabil aizetan,  
bedarra jan ta, esnea edan  
amaren magal gozotan;  
bakea eder mendi gainean  
eguzkiaren printzetan,  
bizitzak ba-dau gozotasuna  
arrats berako pozetan.

Goizian goiztar barriro bere,  
artzain ta artzainora "txuri"  
txabol zarretik urtetan doaz

bide zear abeslari;  
urdaillak gosez, zelaiak eder,  
bedar gozoa ameslari,  
bildots zuriak edertzen doaz  
eskerrak bedar onari.

Begi begira dabiluz gizonak  
euren amets urdñetan,  
iñori kendu euren bizia  
norbere mizkerietan;  
bildots gaisoa, erru gabea,  
etsaiak dozuz kezketan,

ainbeste zelai arritu ziran  
atzo odol gorrietan.

Zure bizitza otzan ta samur  
maitasunaren iduri,  
gizon etsaiak biurtu dabe  
euren gorputzen janari;  
pekatu baltz au parka eiozu  
otsoko iltzailleari  
zure biziak indartu daion  
arnasea apaizari.

AIT A S AN

### (Zornotza'ko omenaldirako)

Dardar daragist gizandi onek  
bildur eta pozezkoa,  
bere bizitzaz lekaidetarra  
gogoz Euskalerrikoa;  
euzko lurretik artu zenduan  
jatorrizko erioa,  
zelai ta mendi, baratz ta gizon  
maitasunezko gogoa.

Egi ederra zan zuretzako  
arbasoen izkuntzen,  
baiña danetan ederrena zan  
Euskalerriko jendea;  
birau zakarrrik ez zan entzuten,  
ain garbia zan berbea,

euzkotar biotz zuzena danak  
bere almenez betea.

Giza begiak zabaldu ziran  
uri ta baserritara,  
dana zenkusan katei azpian  
etsaien gogorkerira;  
ama onena negar-miñetan  
kurutzatuen antzera,  
nork ez min artzen ainbeste lerrez  
amaren zoritxarrera.

Aldi aretan guda baltzena  
agertu zan gure errian,  
ordurartian itzez burruka

egin zenduan kalia;  
ondorenean gudari-apaiz  
lagundu zeuntzen mendian,  
baita-be-gero amaren miñez  
iru-urtetan espexian.

Guda ondoren, urte baltzetan,  
artu zenduan lumia,  
al zendun eran salbatuteko  
euskeraren arnasia;  
lan ta burruka ta jazarpena  
izan zan zure bizia,  
odol ez beste dana joan zan  
erriari eskeinia.

PAULIN

## ITXARTU ZAITEZE....!

Euskerea egoera larrian dagoala, gauza agiria da usi gura dagianarentzat. Leku guztietan, baiña Bizkaia'n batez be. Ames egin genduan igarotako aldietan, unen baten gure eskoletan indarrez irakasten euskeren izkuntz arrotza, gure ordua etorrita, amaituko da bein betiko.

Oker gengoan, baiña. Abertzaletasunak lortutako i-erakundeek, Bizkaia'n, baita beste lekutan be, erria ez dan izkuntza nai-ta-ez jarri dauskue. Eta au negargarriagoa da, benetan, geure Jaurlaritzak eta beste i-erakundeak errudun diranean. Gaur, Bizkaia'n (gitxi izkuntz ezik), umeek ez dabe ikasten euren inguruko euskerea, beste bat baiña. Umea euskaldun jatorra ba'da, in dagike erabilli etxean berbete ori, eta onen ondorez, etxean erderaz diardue. Erdelduna ba'da, ikasten euren euskerea ezin darabilke euskaldun erritarrekin. "El Batuan" irakatsiriko umeak ez dau inongo eretik irakuleteko benetako euskaldunekin. Bada beste zerbait irakartzen gaituena, eta auxe: Gure "Telebista" edo irakulete esateko ikustirratian, ez da inoiz bizkaierarik erakartzen. Bizkaiera zapuztua, aztua da, eta bizkaitarren irakuleteak bizkaiera lurperatzeko erabilten dira.

Onen ondorioz, bizkaiera aldatz beera doa etenbaserrietan txokoratuta (ez dakigu noiz arte, baiña irakulete lizarorako). Bizkaia'n agertzen diran legezko agintak, iragarkiak, oarrak etab. erritarrek ulertzen ez daben berberaz kaleratzen dira, eta zer diñoen jakiteko, erderaz jo. bear dogu. Egunerokoak, aldizkariak, liburak, irakulete irakurten ez dauan euskalkeriaz idatzita eskintzen euskuez. Nora goaz euskaldunok...? Badirudi, gure agintak azken zentzun-apurra galdu dabela. Nora garoez irakulete orretatik...? Ez al-da ordua, euskerarekiko maitaenez aztertu dagien BENETAN, nora garoezan orain euren erabiliteko bideak...?

Ama euskera geisorik datza kinka larrian, eta osaketa, asmakeri kaltegarria dan osabide bat nai-ta-ez irakulete-erazoten dautsoe, alde batera jaurtita bere-berea euren euskera osasungarria. Gutariko idazle argi batek irakulete dau, asken amar urteotan, euskereak Franco'ren irakulete urteetan baiña atzerakada andiagoa egin daua. Irakulete izan be, berarekin bat nator. Bizkaia'n erri-euskerea irakulete daitenean, zer egingo dabe gaurregun euskereaz irakulete diranak...? Egunen baten gure erriak garbiketako irakulete erantzukizunak eskatutako dautsez, euskerearen uga-

lak darabilleanai. Zoritxarrez, baiña, orduko negarrek ez dabe bizitzara ekarriko erail eben asabakandik artutako euskera ederra.

Negargarria da, euskerearen iraupena galtzori gorrian dagoanean, orren arin eta zoro jokatzera. Baiña bada negargarriagoa dan beste egi bat: bizkaitarrok darabilgun zabartasun eta ardura-eza ondapan orren aurrean. Mingarria da egiztatzea zelako ardurabagekeriz begiztatzen dogun gure izkuntzaren ondapena. Itzegira daroen bildotsak lez jokatzera dogu. Gizajo inuzenteak lez, gure baserrietan euskerea ostentzen danean, beste baten eriotza bai'litzan bake betean gagoz, orrek gurekin zer-ikusirik ez bai'leuan. Are txarrago oraindiño: bizkaitar asko ta asko aalegintzen da "genocidio" edo erailketa onetan, eta tartekoa da inongo arrenkura barik, asabakandik jarautsiriko euskerea bere eskuakaz erailten dauala.

Oñazez autortu bear da, geurok, bizkaitarrok, euskerearen ondapenean errudun gareala. Batzuk, esku-sartze andia dabelako euskal-politika zoro orretan, edota beste batzuk, gure euskalkiaren eriotza ikusita, arduraz andienaz eta isil-isillik, ez dabe ezer egiten erailketa ori eragozteko. Benetako euskaldunak ba'gintzaz, edonon ikusten dogun jokaera negargarri ori, ez litzake jazoko. Baiña lotan gagoz, lozorroan, ain zuzen be, eta olan jarraitzekotan, itxartu orduko beranduegi izando da.

Augaitik, "ZER" aldizkari onetatik dei bizi bat egiten dautset euskaldun guztiai, eta bizkaitarrai batez be, euren erri-euskerearen alde jokatu dagien sendo ta zindo. Norberaren inguruan euskerearen aldeko arrenkura erein dagien, eta aal dagien zabalkunderik andiena egiñez, euskaldunak itxartu daitezera. Baiña auxe batez be: eragintza au sendotzeko, euren eritxiak idazlanen bidez agertu dagiezan. Aalegindu gaitezen illero-illero gure erri-euskerearen alde, idazlan bat argitaratzeko aldizkari onetan. Ez dakit noraino garoezen euskerearen erantzukizuna dabenek, baiña etorkiak esan bei, txokoratuak izan arren, bazirala erri-euskerearen alde jagi ziran euskaldunak.

Euskaltzaleok, itxartu zaitezere...!

ZUBIRI'tar IÑAKI



# ASKATASUN GOGOETAK

Gora Euskadi Askatuta dearka il ziran gure gudariak Euskadi'ko mendietan. Gora Euskadi Askatuta oiuka erori ziran fusillaturik ainbat euskotar, espetxeetako zoko-bazterretan, edo illerrietako ormen aurrean.

Eta ziñopa edo martiri aiek eriotzako orduan gores ten eben askatasuna, askatasun osoa zan. Ez zan, autonomia edo estatuto bat, naiz estatutorik zabalena izan. Askatasuna, gores ten eben aiek: iaretasun betea, "independentzia", zentzu okerez azken-urte auetan esaten dan lez.

Gaur ordea, iasko-eta-asko! moteldu yaku askatasunaren leia. Baita, deabruaren eragitez egun ipernukoi negargarri batean apurtu zan Eusko Alderdi Jeltzalearen bi zatietako abertzaleen artean ere.

Gure abertzaleak, beren buruak españitartzat artzen asiak doguz; eta pozik aurkitzen dirala dirudi Españi'ren altzoan. Aztu ote yake euskotarron Aberri bakarria Euskadi dala, eta euskotarron gizarte-ekintza guztien elburu nagusia Aberri orren askatasuna, askatasun osoa, yaretasun betea, izan bear daula?

Bai noski! Eta orregaitik, gure jendeari, batez ere gure jende ikasiari, lotsa ematen dautso askatasun itza erabiltzeak ere. Gure artean, gizarte-izti eta edestiari-buruzko jakintzetan ikasiak, españizaleak dira danak, edo Españi'ko unibersitateetan ikasi dabelako, edo-ta, naiz Euskal Unibersitatean ikasi, beren ikasketak irakasle españitarren zuzendaritzapean egin dabelako.

Euskal Unibersitatea ez da euskaduna. Ez beintzat euskotarra. Españiarra da, bertako irakasleak Euskadiko Ezkerra-ren girokoak diralako.

Euskadi itza baztertuta Euskal Herri erabilli nai orrek berak ez al dausku orixe bera adierazten? edo, "eukotar" itzaren orde z "euskaldun" erabilli nai izate orrek? Euskaldun esaten dautsee beren buruei, naiz euskeraz tutik be jakin ez! Zergaitik? Orrela *izkuntza utsari* dautsoen zaletasuna agertuaz —edo gezur-agertuaz, euskeragaitik ez bait yake axolik—, *poi t kazko askatasuaarekin* zer ikusirik ez dabela eta askatasun ortaz ez dabela ezer jakin nai adierazteko.

Ezin sinistu daitekean gauza da, naiz lau katu izan ez Euskadiko Ezkerra'ko jendeek gure artean daben eraginmena. Gure jakintsuek, ezkertiar agertu gura dabe gizartearen. Eta naiz komunistak izan ez, zearo komunista dan Euskadi'ko Ezkerra'ra jo dabe. Egia da Madrid'ko Jaurlaritzak eta Españi guztiko irrati, ikus-irrati eta izparringi eta aldizkari guztiek, Euskadi'ren gurari eta lei guztien ordezkari lez —Herri Batasuna'z gaiñera— Euskadiko Ezkerra bakarrik aurkezten dabela. Ez da arritzekoa, Euskadiko Ezkerra, abertzalea ez dala, oso-osoaan españolista dala bait dakite!

Baiñan Euskadiko Ezkerra'k gure izparringietan daun aipua, ez al da arrigarria? "Deia"n bertan, ia Alderdi Jeltzalea baiño geiagotan aitatzen dabe bā, abertzalea ez dan Alderdi ori!

Egia da, "herribatasuneroek" "independentzia" itzari ematen dautsoen zentzuak ere gaitz aundia egin dauskula; askatasunzaleak eta "herribatasuneroak", danak bat dirala pentsatuarazi bait dautso jendeari gure artean.

Ez zara oartu? Españiarrek, beren Jaurlaritza auresku dabela, "herribatasuneroei" bakarrik esaten dautsee "abertzale". Zergaitik eta zertarako?

— Herri Batasuna, alderdi abertzalea ez dala, soilki alderdi komunista dala, badakitelako.

— Herri Batasuna komunista izanik, gure jendeari askatasuna komunismoaren gauza dala sinistaarazteko: Abertzaleatasuna, komunisten kontua!!!

Ori dala-ta geiagoko arazorik gabe pake goxoan ederto bizi diralako?; beraien biotzetan ere askatasun-guraria, epeldu xea aurkitzen dalako?; sabindarron buruzagiek ere ez dabe askatasunaz, bearrezkoa litzaken bizkortasunaz itzegiten. Estatutoa obeagotzearekin aski dogula uste ba'lebe bezala mintzaten dira.

Zintzoago jokatu bearko leukee, puntu edo atal auek argi ipiñiaz:

— Estatutoa, autonomia, gureztat, mailla batzuk besterik ez dirala. Gure elburua, mailla oietatik gora igoaz, Euskadi'ren askatasun osoa dala.

Gure buruzagiek maiz esan dabe, gaur askatasun osoa, ametsezko gauza besterik ez dala. Laterri aundiak ere, bakarrik ezin bizi diralako, alkarrekin alkartzen ari dirala; Europa'ren batasuna egiñaz, adibidez.

Izkera ori, izkera ustela izateaz gaiñera, gezurrezko izkera da. Europa Batu orren altzoan, Frantzi, edo Belxika, edo Olanda, edo Luxenburg, ez al dira egiazko Laterri iareak? Egiazko askatasunik ez al dabe? Bā..., askatasun ori bera gura dogu Euskadi'rentzat. Irlanda, edo Itali, edo Luxenburg bezalako Laterria izan nai dogu Europa Alkartu orren barruan, Ain zuzen, Jainkoak geografiz ipiñi ginduzan lez, alfabet-arauaren erarara, Frantzi'ren eta Españi'ren artean, Euskadi Gorrotorik gabe, adiskidetasun osoan, baiñan, bien artean, aiek bezalako askatasun betearekin! Ori, argi ta garbi esan bear leukee gure burukideek.

Gure askatasuna, ez da "herribatasuneroen" independentzia.

Askatasun itza baztertuta, "independentzia itza" erabiltzen dabe. Orixen bera egin eban Lenin'ek ere, errusierak askatasuna adierazteko baeban itza gaitzetsiaz. Marx'ek alemanieraz erabillitako itza bera erabilli eban: "independentzia". Errusierako lurralde guztiei eskeiñi eutsen independentzi ori. Uste al dozu gaur errialde aiek, guk Euskadi'rentzat gura dogun askatasunik badabela? Ori eskatzen dabe ainuzen errialde aiek: Armeni'k, Lituani'k, Jeorji'k, Estoni'k...

Independentzia badabela, erantzuten dautse Alderdi Komunistak. Eta egia eratzuten dautse. Lenin'en eta "herribatasuneroen" independentzia, politikazko askatasuna ez bait da. Politikazko Askatasun orri, "independentzi burgesitarra" esaten dautse. Beren independentzia, bereiziki ekonomiazko askatasuna da: langilleen ugazaben menpetitiko, askatasuna: proletaritzaren Dikartura. Eta ezer ez besterik.

Proletaritzak agitzen ba'dau, zer ajola, Gernika'tik, Madrid'tik edo Konpostela'ko Santiago'tik ala Lisboa'tik agindu, agintzen dauna Proletaritza baldin ba'da? Portugal, Euskadi, Frantzi, Españi, eta beste Laterri guztien izenek politikazko baliorik ez daben itzak dira komunistentzat. Burgesitarrek sortuak.

Badoguz beste atal jakingarri batzuk ere, beste egun baterako.

# AOLKU-BATZORDEA TA BIZKAIERIA

Oraintsu egin da Eusko Jaurlaritza'ren Aolku-batzordearen barriztatzea eta barriztatze orretan sei bizkaitarrek urten dabe eta bat bakarra sartu da.

Ori dala-ta, EUSKERAZALEAK alkartearen izenean eskutitz bi egin dauz Zubiri'tar Iñaki Zuzendariak, bata lendakariari eta onen erantzuna itzaroten gagoz, eta

beste bat sail orretan arduradun dan Mari Karmen Garmendia'ri.

Azkenengo eskutitz bi oneik agertzen doguz. Ikusi begi irakurleak Zubiri jaunaren kezkeari erantzun egokirik emoten jakon.

1989'ko Epailla'ren 3'gna

## EUSKERAREN AOLKU BATZORDEA

Mari Carmen Garmendia

GASTEIZ

Andre agurgarria:

Benetako kezka ta atsekabez jakin dogu Euskeraren Aolku Batzordearen azken aldaketan, ainbat bizkaitarrek anpora urten, eta bat bakarrik sartu dala euren ordez.

Jokabide ori, aurrez-aurre bizkaieraren aurka doala uste dogu, eta ezin dagikegu gure asarrea agertu barik izi. Badirudi Jaurlaritzaren jokabidea, bizkaieraren aurka agiri-agirian doala, eta ez dautsalara ardurarik Bizkaia'n uskera galtzeak be, bizkaitarren aolku ta irizpiderik ez entzutearren.

Egoera Iarri onetan, benetan minduta geratu gareala jakin egizu.

ZUBIRI'tar IÑAKI  
Lendakaria

IÑAKI ZUBIRI JAUNA

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2."

VITORIA-GASTEIZ

Vitoria-Gasteiz, 1989'ko Martxoaren 9'an

Jauna,

Jaso berria dudan zure eskutitza irakurri eta gero honako hau adierazi nahi dizut.

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizut kezkek eta iritziak azalduz idatzi didazulako. Arretaz irakurri dudala esan nahi dizut.

Euskararen Aholku Batzordean emandako aldaketak kezkaratzen zaitula ikusteak nahigabetu nau. Jakin zazu ez dagoela inongo eta inoren aurkako jarrerarik, Aholku Batzordearena ez dela asmo gaiztoz burututako aldaketa izan. Batzorde honek euskadun guztion hizkuntza du gogoan, guztiok elkartzen gaituen euskara indarberitu asmoz dihardu. Horixe da bere eginbidearen xedea.

Gure euskararen egoerak, bestalde, bistan da guztion laguntza beharko duela hontatik onik aterako bada, denok elkartuta ere lanik asko izango dugu nahiko genukeen mailara jasotzen. Eta euskararen alde ari garen lehen urrian gogozkoa dugu bere izaera, ñabardura eta ezaugarri ere. Euskara bide onetik abiaraztea da kontua.

Ez dago, beraz, susmo txarretarako inongo arrazoirik. Benetan prest nauzu zure kezkek eta iradokizunak gogoan hartzeko, bidezkoa den arretaz aztertzeko.

Guztion ahalegina euskararen onerako izango delakoan, agurtzen zaitu.

M. Karmen Garmendia Lasa  
Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia

## ARBASOEN IZKUNTZA-ZALEAK

Izen ori daroa Gipuzkoa'n naikoa oraintsu sortu dan izkuntza-alkarte batek. Alkarte orren barria antziña ez dala moten genduan ZER aldizkari onetan.

Oraingo zenbaki onetan eurak ateraten daben Azalpen-Aldizkaritik artutako barri ta lan batzuk eskintzen doguz. Amale Arzelus'ek bialduak dira.

### 2gn. AZALPEN ALDIZKARITXOA

— Zortziga en alean, "Arbasoen Izkuntza-Zaleak" izeneko izkuntza-lana azaldu genun. Bertan, Elkartea'ren elburuak adierazten genitun eta izpa ingi, i ati... ar-eman bideetara, alegia, bialli eta argitaratu ez zutela genion.

Geroztik ordea, Euskadi i atian gure lendakariearekin elkar-izkuntzeta egin zuten eta "ZER" aldizkarian, bialitako idaz-lana argitaratua izan zan.

Bijoakie emendik, bioi, gure eske ik beroena.

—Euskal idazle askok, euskera garbian, gure aintziñako izkuntza, gerokai, uzteko egin zuten eta ari diran lana nabazazi nai genuke; lendik egiñak eta ageri be i diran idazti garrien bidez.

Idazti auetakoak eskuratzea oso onuraga ia litzake, irakur-erentzat lenengo eta onekin, idazti oiek argitaratzeko bear an diru laguntza emango degulako, bear bea ezkoa baita laguntza au!

— Besteen artean, ondorengo idaztiak izendatuko dizkizuegu:

— "ERLEZAINZA" — JAKAKOTAXARENA'tar  
 - I - II aleak TXOMIN apaizak  
 — IZADIKO PITXIAK — ZUBIRI'tar IÑAKI'k

Azkeneko au, 89-3-10'ean Donosti'n aurkeztua izan zan.

Ondorengo beste aukerak, au entzat dituzute:

— "TXURI TA GORRI" 2 EUSKERAZAINZA'k  
 — "TXURI TA GORRI" 4 »  
 — "TXURI TA GORRI" 5 »

Auek ere, 89-3-10'ran Donosti'n aurkeztu zituzten.

—Euskera irakasketak (e i euskeran noski) zabaltzen ari diranakin ar-emanetan ja i nai genuke. O elakoren bat ezagu-berazker beraz, jakinazi a en, Elkartea'ra adieraziaz.

### EUSKERA'TZAZ ALDIZTI BE ANTZAREN ARGIBIDEA

Aldizti argi-bide au bukatzeko, zenbait abede aztertuta, hizkia arkitu ez degula adierazten dizuegu. Abede aukerata itugun idaztietako lau azalduko ditugu:

Ondorengo aukerak dituzute:

' - 1986 Arana Goiri'tar Sabin.  
 "Obras completas" 858 gn. o ialdean  
 (2gn. Age .)

2.<sup>a</sup> 1919 Arrigarai'tar B.  
 "Eusal eliztia" (9gn. o ialdean)

3' - 1972 Estron s Lasa'tar José.  
 "Cómo aprender el vasco fácilmente" "  
 290 gn. o eialdea (3gn. Age aldia)

4' - 1979 Onatibia'tar Yon.  
 "Método de Euskera" IOgn. o ialdea  
 (IOgn. Age .)

### EUSKALI AURKEZPENA

Leengo ostiralaan, Epailla'k 10, Dr. Camino aretoan, euskal idazki aurkezpena izan zan.

Lenengo, Zubiri'tar Iñaki'k (Euskerazaintza'koa), berak egin-dako "Izadi Pitxiak" idaztia aurkeztu zun. Bizkaitarra danez, bizkaieraz egin zun itzaldia. Euskera jator, goxoan; geienok gipuzkoarrak izan arren, ez det uste iñor ulertzeke geratu zanik. Euskera ONDO jakin ezkerok, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak elkar ulertu eziñik ez degula adierazi nai nuke onekin eta ezta beste euskalkietakoakin ere.

Zubiri'tar Iñaki bizkaitarra izan arren, idazti au gipuzkeraz egin du, gipuzkera ederrean. Zortzi ipui dira guzietan notin nagusiak (protagonista) abereak dituzute. Auek dira: "Malgu" (anguila); "Urzale" ibaiko ugadera (foca); "Uzi" erbiñudea (comadreja); "Kizka" azkonarra (tejón), "Gorria" azeria (zorro); "Ulki" basurdea jabali ); "Ernaia" baserlea (abeja); "Uri" otsoa (lobo).

Gero, legezko jabea Euskerazaintza dala, Ernani'ko Uru-mea ikastolako "Zipitria'tar Elbire" Mintegiak eratu eta Edili'k argitaratutako aurrentzako iru irakur idazti aurkeztu zitun Gaztañaga'tar Jesus'ek, aurrai eta gaztetxoai irakurtzeko zale-tasuna sortzea oso bearrezkoa dala adieraziz. Gaztañaga jau-nak berak idaztitan egingako itzaurrean ederki adierazten du idaztiak zer eta zertarako diran. Ortaz zati batzuek berridatzi-ko ditut:

"Irakur-liburu bat degu TXURI TA GORRI 4. Zerbait berezia adierazi nai degu irakur-liburu dala esatean.

Elbira Zipitria andereñoa, eta aren ikasbidea eredutat artuta, adiñari dagokionez, aalik ulerterrezenak, geienak euskal-senaz girotuak eta ikasleengan irakurketarako zaletasuna aalik bizien zuzpurtuko dutenak aukeratu ditugu."

Aurkezpena luzeagoa da, baiña emen jarritakoarekin nai-koia izango da noski.

Ea ba, aurrak eta aurtzaroa utzi genunok, euskeraz irakur-zen saiatu eta zaletzen geran.

### AINHOA DE BOURTHOUMIEU'ri

Zorionak Ainhoa! Euskera arazoan, geienak ikusten ez dutena ikusi dezulako. Ez ikusi bakarrik, adierazi ere bai.

Tamalgarria da benetan, gure izkuntzarekin gertatzen ari dana eta ez dakit zeren zai gauden, arazo ontaz kezkatu-rik gaudenok (eta ez det uste oso gutxi geranik) gure iritzia



## JOSU ALTUNA MENDIOLA (1909-1989)

Illotan zain egon naz, il-izpar beten zain. Aurtengo urtarrillaren Tan il jakun Josu Altuna, `Besajaun" euskal idazle errimearen eriotz-albistearen zain, ain zuzen. Baiña lau-bost illabete joanak diran arren, ZER'ek ezik, beste batek be ez dau aitatu be egin aren eriotzarik. Eta merezi eban, eta orren zain nengoan ni. Baiña, ezertxo bere ez; leize-ixiltasun miresgarri.

Zergaitik jakoera ori? Olako asko egin oi ditugu gaur. Zergaitik, oi u dagit bigarrenez be. Au askorekin egiten dogun ezker, nik errazoi bi asmatzen ditut emen. Lenengoa, ez doguzala ezagutzen euskal arloan diarduen idazle erdiak be, ezta onein lanak be, bestelan ez geunke aurkituko ainbeste oker, ez-esateko ta bear eztanen bat egite, zerbait dirala uste daben euskal idazle txepeletan; bigarrena, ondo irauli ta gogaznarturik, opildu oi ditugula antzeko ixiltasuna, bai politikaz edota bai idatz jokeraz, urli ori ez bait da gure bidekoa. Zio orixe tarteko, itzal-zulotik bialduz poztu ta irri egiten da euskal idazle trebeen lepotik be.

Eta ondorena? Egiatzko kaltea dakartsagula geure izkuntzeari.

Ni baiño pizkat gezteago zan Altuna -1909-4-Tan—, adiskide zarrak biok; mendian, Larra'n eta Batzokietan sarri alkar ikusiak. Il zan baiño lau aurrerago, alkarregaz etorri gintzazan trenez Bilbo'tik Galdakao'ra, beti lez umore onez eta berbatsu. Bere belbillean ibiltzen zan geienez, baiña orduan bultziz etorren, eta ogei bat miñutuz zenbat jazoera astindu genduzan!

Gerraldian nundik nora ibilli zan, Legutiano aldean eta abar; azkenez Ertzaintzako izentatu eben, eta Bilbo galdu genduan, uri au jagoten gelditu beste askogaz; orduko ta geroagoko estualdiak, baiña beti itxaropentsu. Espetxean egin zan euskal idazle; atsegin jakon irakurtea, eta lagunak zirikatuta, jakituna etzan arren, barruak eragindako lanak naikoa biribildurik etozan.

Ule moztzaille zan ogibidez, bere bizialdi guztian. Aste bitartean lan eta domeka ta jaietan mendira: guztiz mendigoizale zan. Euskadi'ko tontor eta zelai ederrak ikusiz, arrotu egin oi jakon izatea, zer idatzia eskiñiz. Maite eban bere aberria, eta pozaldirik gozatsuenak ara ta ona ibilteak ekartzen eutsozan. Eder jakon beste askori be aberrigintzaren zaletasuna espiritu-barne ondo sartzea; orretarako, egundo asperu barik, itzez eta egitez, lanean: benetako abertzale genduan. Kirikiño'k, Lauaxeta'k Lizardi'k... maite eben mendia. Arraba, Gor-

beia'ko zelai zabal, urtsu, eder bat da; ementxe dago gaur be, Galdakao'ko "Ganguren" gazte mendizaleen aterpe zoragarria, beiñola "Basajaun" gatzeak sortua, bere erriko gazteak mendizale ta abertzale biurtu nairik jasotakoa nunbait.

Erakarpen aundia dau mendiak. Idazle danari, gainera, mesede ikaragarria ekarten. Milla gauza sartzen jakuz zentzunetatik, ikusiz eta entzunez batez be. Iru-dimena arro-arro egin oi jatzu, iñoiz be gogora etorri ez jatzuzan gauzak irudikizunak eta pentsamentuz jantzirik. Zoaz etxera, eta bertatik edo urrengo goizean, parrastaka yatortzuz luma puntara urez oparoa dan iturri txorrara bizia lez.

Idazle zurrian merezi ete dau aipamenik Basajaun'ek? Ez? Gizalegez eta euskal maitasunez jokatzean, ez izan dudarik. Abertzale zintzo ta euskal idazle aspergaitza zanez, ori ta geiago merezia dozu.

Naiz-ta eskola aundi-aundiakoa ez izan, idatziz ikasten da idazten eta sakon pentsatzen, pelotari jokatzuz ikasten dan lez pelotari trebe izaten, azken urteetan batez be, eten gabe lumeari eragiñik, ikasi eban Altuna'k lan atsegingarriak, euskera garbi errezean, osotzen. Abertzale argitalpenetan —"Gudan", "Euskadi", "Alderdi"— daukazuz aren lanik geienak. "Zeruko Argia", 196Yan, bere bigarren aroan argitaratzen asi zanean, an daukagu galdakar au be idale lez.

Gizona ikusiz eta artikuluak irakurriz ondoen apaitzen diran ezker, ona "Sagardui, txirrindula txitrebialderitxon lan begiko au. 56 garren zebakian dator, epaillaren 22'an. Zaratamo koa zan Sagardui, urte areitan entzute zabalekoa. Eta onela idazten dau "Basajaun"ek:

"Sagardui'tar Jon-Joseba, mutil gazte ta txirrindulari trebiak, benetan dan adizkide asko beren erri auetan eskerrak beren trebetasun da alaitasuna gaitik. Beti irribarretsua beren ezpanetan dabela, Mutil apala ta maiztagarria da erritar eta adizkide guztientzat.

"Ikusirik beti gagozala zerbait jakin gurian, Sagardui'ren ezagunak, asko dira maite dabenak, beren txirrindularitzako gora-berak, beronen etxera zuzendu gintzazan Epalla'n l'gn, igande eberdian, "Zeruko Argia"-rako zerbait esan nai ba'dau.

ertzeko, zuk egin dezun bezela. Ez ixilpean edo bildurti, enki baizik.

Ez dakit zein iztegieta arkitu dezun "notin" itza, baiña noski oraingo "hiztegi"ren batean. (Auetakoa ba'litz, Miguel ondo'k dionabezela, "Neologismo incorrecto... e.a.), esango en. NEOLOGISMO bai; INCORRECTO? Zein ote da ORRECTO? PERTSONA? (Uff, zuk ziozun bezela).

"Neologismo" edo itz berriak, izkuntza guztietan sortu errekoak izan eta izango dirala argi da, beti gauza ta jakin-berriak sortzen ari diran ezkerero. Euskeraz, itxuraz, gauza berri oiek —eta ain berriak ez diranak— españera eta pantzera-berriak artu bear dira, oraingo "maimak" diotenes. Ez au bakarra, lendarik sortutakoak, ondo sortuak, alde batera utzi eta berriak diozun bezela, "posibilitatea" "oportunitatea" eta orrela-

ña y Goñi, 10-5.º izda.

ONOSTI

N.I. 14.987.434

**DIARIO DE NAVARRA 1985'KO EKAINA'K 8**

**Ikuskeren "filologo" batzuen txolinkeria**

Bai ordu onean jaio zela Euskerazaintza. Euskeraren Erri Akademikoa! Berau jaio ez ba'litz onez gero joan zen gure eskera errikoia pikutara, edozein izkuntza *bantu* bat izateko! Gogorra da esatea, baiñan egi utsa (errealitatea) euskera berria eta garbiaren etsai amorratuena, eskoladun "filologo" batzuk dituzula. Euskeraren muiña, euskeraren arnasa zipituta ezagutzen ez duten batzu oiek, badiardute bere ekin altzean txukun zegoanari plaztada beltzak jartzen, berak sor-berako ur zikiñak euskeraren ibaya loitzen. Eta onela, badute bolara ontan zertaz zikindu: erderazko "aje" sufijo orren berdez Euskal sufijo baiño geiago den "aia" sartzea; dakusgun berria.

Onetzaz, lendabiziko aztarrenak auek izan ziren: "Pelikula zemetraia" (pelikula largo-metraje). Erderaz pensatu eta onerdatzi zuenak berdin esan zezakean: "pelikula luzea", "pelikula laburra", idaztea baiño... Nere aldetik auxe pentsatu en: nundik atera ote dute sufijo ori?

Bearrik gabe itz berria ere sortu zizuten "bidaia" itza beruz, *viaje*'ren ordez, "ibilketa", "txango" eta beste dituguncan. Gero, barra-barra irratietan entzun ta izparringietan iraritzen asi nintzen, onelakoak: *ultraje* (erderaz dijoakizute beru gabe gel ez zaitezten), *traje*, *libertinaje*, *hospedaje*, *olea-rodaje*, *auto-blindaje*, *peonaje*, *utillaje* eta abar luze bat.

Personaje ordez "personaia" ikusi nuenean, etsi-etsi izte-berri ikustera joan mintzaizuen: "Aje (erderaz) "Especie de

ko itz *zoragarriak* erabili bear dira, orrela euzko nortasuna erabat galduaz.

Ontaz luzaroan jarraitu diteke baiña ez da au orretarako lekua.

Pozik itz egingo nuke zurekin gai ontaz; nai ba'dezu, "apartado de correos 1067"ra idatzi ta artu emanean jarriko giñake.

ARZELUS'tar AMALE'k

Enviada a EI Diario Vasco en enero 1988 y no publicada.

cochinilla de Honduras, de la que se obtiene un hermoso color amarillo" ikusi nuen, beste esan-naian artean. Eta euskerazko "aia", aurrei ematen den papilla delakoa.

Naspilla alde guztietatik. Irakurle, pentsatu zedorrek. Milla pentsamentu ondoren, etorri zitzaidan argia. Pasajes, *Pasaia* esaten dugulako da, nere iritziz beste arrazoirik gabe. Eta alaxen, euskerak ordezkua daukan iz jatorrak billatzen ibilli gabe, erderaz asko dakitenak "aje" sufijoa jartzen asi ziren.

Egon, baiña, irakurle, egon lasai. Oraindik ez dira asi "aje" ori prefijo bezala erabiltzen. Laister asiko "Aiadrez" esaten *ajedrezaren* tokian; eta "aiatreo" *ajetreo* esanairako.

Arrigaria dena da, Euskaltzaindia ez dela oartu eraberri onen aurrerapenaz bere izenburuan onela ipintzeko: "Euskaltzaindia, Euskal lenguaiaien zaitzalia".

\* \* \*

Bukatzeko, azterketaxo bat merezi du nik txolinkeria diotan jokabide onek. Agian, borondate onenarekin arituko zaizkigute "filologo" auek. Baiñan, neologismo jator askoren etsai amorratuak izan ziren berberak, orain berak ari zaizkigute bi izkuntzen maasketaz "euskaren iztegia" itzez gaiñekutzen. Ordea, emen, ugaritasuna zaborkeria da. Bi izkuntza ederrekin izkuntza zatar bat, lenguaia ijito bat ari zerate osatzen. Biatarrentzat arrotza izango da eta iñork ez du maitatuko ta maite ez dena iltzera dator. Ura eta ardoa nastutzen direla? Bai, egia da ori, egarri aundia denean. Bestela ura eta ardoa, bakoitza bere senaz, txarro banetan.

URRUZOLA'tar E.  
Diario de Navarra 1985-6-8

"Beren etxeratu garenean oean aurkitu dogu, baña itandu dogunaz batera gure aurrera aukeztu da, ta gure gurras batera itandu dautsagu:

—Zer jazoten da Juan-Jo (auetan esaten dautsagu adizkide guztiok); gaixorik al zagoz ala?

—Ez, baña txirringutzan nebaillenean goizetik bazkaldu ta oera joaten naz atsedendu edo deskantzetan.

—Ederto dago orixe kiroletik bizi dabenantzat.

—Juan-Jo, zeutzaz idatzi nai dot ZERUKO ARGIA'n; zessan gura daustazu zerbait?

—Bai ta pozik astekari orretarako; itandu nai dozuna.

—Ba, zure barri pizkat ba-dakit, baña Zeuk esatia naiaigo dot noz da non jaio zintzan? Irri-barrez egoala berak baño lasterrago here aitag erantzun euskun: orain ogetabi urte Zaratamo ko Arkotxa auzunean.

—Orduban etzara galdakanotarra?

—Jayotzez ez, baña izatez, bai. Nik ez dot aaztu nai Arkotxa; maite dot auzune ori, baña txiki-txikitik ekanari ninduen gurasoak Bengoetxe auzune ontara. (Bai alalan da, diño bere aitag), eta geyago emen bizi naz, ta emen egin naz naizena. Orregaitik beti uste izan dot galdakanotarra naizela.

—Alantxe da, gizona ez da jayotzen dan errikoa, egiten danekoa baño. Guretzako bardin da Zaratamo'koa edo Galdakano'koa izatea. Bizkaitarra, Euskal erriko semea zara ta naikoa da.

—Zenbat urte da txirringulari asi zintzala?

—Eztakit, gaztetxotan asi ta geyago nabil da.

—Geyen poztu zaitez g4raitzak (triumfoak)?

—Ainbat dira; baña, geyen-geyen, Madrid'en, Bizcaya'ren izenean, Uriona, Uribe Zubia ta nik, iru gazteok lenengo egin genduanian. Orain urte bi, Bilbao-

'tik, Artxanda'tik bira-biraka España'ko onenen aurretik garaile urten nintzanean. Arrate'ko igoera ta Eibar'ko txirringutzean sariketa irabazi nebanean, eta abar.

—Zuretzat nor izan da emengo txirringulari onena?

—Loroño.

—Eta oraingua?

—Orain onak asko dagoz. Bahamontes, Pérez Fran-zés, ta abar, ta abar.

—Zeu zelan ikusten zara?

—Aldi onetan, uste dot, iñoz baño obeto. Ongi trebetu naz da, zerbait egingo dodalakoan nago.

—Zelan zagoz "Kas"-en?

—Pozik Buruzagi edo jefe ona daukagu, Langarika, ta lagun on adizkide benetakuak, bata-besteari lagunduteko beti gertu dagozanak.

—Urren, zelazterketa edo karreran alde artu biar dozu?

—Biar, illa'n 2 gn. guaz Barzelona'ra eta ango azterketak amaitu orduan Italia'ra, eta bertan zer egiten dogun ikusirik jakingo dogu noz gatozan geure lurraldera.

"Ez al dozu eukiko eragozpenik zeure ibillaldietan, garaille urten daizun zabilzan errietan; jarririk Galdakano gorengo maillan, eta gure Euskalerria biotzan erdian."

Eskolatu baten eran biribilduta daukagu alkar-izketa txairo au. Merezi eban, beraz, izan dauzan baiño azken aipamen ugariagorik.

AITA ONAINDIA



## LIBURU SANTUA TA JAKINGAIK

### ASIERA

Asiera deritxon liburuan lenengo ataletan irakurten oguna 15 billoi urteko luzeerea izan eban aldian bete an, jakitunak diñoskuenez. Orrelan, Liburu Santuak, in-arin irakurri ezker, diñoskunaren eta jakitunak ñioenaren artean alde guztiz aundia dago: Bibliak sei gunean egin ebala Jaungoikoak mundua diñosku.

Alde orrek asko bultzatu edo eroan dauz fedeko alantza aundietara eta fedea ukatzera, baiña ez dogu izatu bear Eleizeak agiri askotan esan dauana: Biblia idazteuna eta bere berbak zentzunez ulertu bear doguzala.

Bibliak agertu nai dauskuna, Jaungoikoaren salbamana da, ez jakintza eta ez jakingaiak. Onetan orduko kingaien menpean dago oso-osoa.

Antzera esan bear errigintza edo politika arazoan e: Jaunaren erriak politikako erakunde bat dauka, teorazia edo Jaungoikoaren izeneko agintaritz, baiña orreaz ez da esan gura ori dala politikako erakunderik ena edo erri guztiak orrelako politika jokia euki bear abela.

### ZTERKETAK

Joan diran berreun baiño geiago urtetan Biblia osoak akarskuna aztertze lan aundiak egin dira. Kontuan an Idazteuna ez dala liburu bakarra, 70 liburu baiño a liburu bakoitxak bere izakera berezia dauakala, bakoitxak bere idazkera berezia eta ulerbide berarizkoa.

Idazteuna ulertzeko, bera idatzi zan aldian zelako azkerea erabilten zan jakin bear da. Arlo onetan apur at sakondu ezker, laster ikusten da orduko idazkearen eta gaurkoaren artean alde aundia dagoala; gainera orduko giroa be aztertu bear da: Zelan ekiten on bizitzan, zelan jan eta jazten ziran, zelako esakutak eukezan...

### KONDAIRA

Urte askotan Asiera liburuko jazoerak gaurko kondairaren antzera irakurten izan dira eta ortik etorri da ulertze-bidean okerrik aundiena.

Idazteunaren aztertzeilleak konturatu ziran lenengo amaika atal orreik kondaira berezia zirala eta salbameneraren egintzagaz eukela zer-ikusia eta salbamenerako zer bear dogun agertzen dauskuela.

Mundua Jaungoikoak egiña dala da lenengo agertzen dauskun gauzea. Izan leiteke orain 16 billoi urte izadian eztanda aundi bat jazo zala eta ortik asi zala izarren banatzea.

Baiña sinistedunentzat olako jazoeretan Jaungoiko ikusi-eziñaren "eskua" dago eta berak bideratzen dau izadia.

Gero izadi zatitu ta sutsu ori aurrera ta aurrera joan zan.

### BIZIA

Izadi orren barruan Jaungoikoaren almenak bere lana jarraitzen dau. Egun baten uretza aundiaren edo itxasoaren bazterren baten lenengo biziduna agertu zan. Jakitunak ez dakie eta ezin' dabe esan zelan sortu zan bizia edo bizia bera zer dan, ez dabe besterik esaten itxasoaren bazterren baten biziduna agertu zala baiño.

Sinistedunok, oster, jazoera benetan arrigarri orretan Jaungoikoaren mundugintza-lana ikusten dogu.

### ZENTZUNA

Milloiak urteetan bear ba' da ibilli ziran urpean olako bizidunak, baiña oraindiño ez egoan munduan eze-lako miñik edo pozik edo goibeltasunik.

Beste egun baten olako bizidun batek aurrerapen aragarria izan eban: Egun aretan munduan lenengoz bizidunak miña asmau eban bere gorputzean eta bear 'da garrazi egin eban, gero ainbeste bider entzun an dan garrazia. Edo lenengo atsegiña asmau eban a pozez jauzita agertu zan.

Jakintunak ez dakie nondik eta zelan izan zan aldantza aundi ori, bizitza utsetik sentitzera dagoan aldantza, baiña guk, sinistedunok or Jaungoikoa Egillea n indarra, almena, "eskua", ikusten dogu.

\*

### DIMENA

Zentzundun abereak asko ugaritu ziran, mi!loiak teetan eta euren zentzumenak geroago ta oartzailleak ziran, baiña oraindiño ez egoan munduan inor limenez Jaungoikoaren antzeko zanik.

Oianean, baso-baltzean bizi ziran abereen artean at egoan, abere-mota bat, zurrena, baiña bere burua abesteko almenik gitxien eukana eta beste piztiak era- o egiten eutsoelako oianetik iges egin eta Landetara an bear izan eban eta an ugaritu zan.

Egun baten pizti ori ulertzen asi zan eta millak teetan aurrerapen aundiak egin ebazan.

Jakitunak ez dauskue esango piztia zelan adimen- an biurtu zan, baiña idazteunak argi esango dausku: Jaungoikoak egin eban gizona eta bere antzeko egin .

Ez da ba, Idazteuna jakingaien liburua, baiña bai lejiño-liburua eta gaurko jakitunai be argi esango dau- e: Mundua sortu zanean, an Jaungoiko Egillea ebi- an, biziduna agertu zanean, an Jaungoiko Egillea ebi- an, zentzuna ta sentipena agertu ziranean, an Jaungoiko

Egillea ebillan; adimena agertu zanean, an Jaungoiko Egillea ebillan...

### ARDUREA

Eta ez une orreitan bakarrik, Jaungoiko Egillea beti dago bere ludi osoan, ludia zaintzen, bideratzen, jokabide- lege ziurren bidez aurrera ateraten eta batez be gizona zaintzen eta beroneri laguntzen.

Ezberrak edo Iur-ikarak edo olakoak izaten dira- nean, ardura ori zalantzara sartuko jaku, baiña siniste- dunak gauza bi daukaz argi: Jaungoiko Egillea eta ezbea- rrak or dagozela eta uste osoa Jaungoikoan ezarten dogu: Bere jakituriak eta almenak ez dau utsik egingo

### IDAZTEUNA

Ludigintza-lan au, Bibliak, orduko ipuin edo mitoai jarraituz eta idazlearen aldetik ipuin orreik aberastuz, munduaren sortzea sei egunetan idazten dausku, iza- kaiak maillaka jarten dauzala: Bizibakoak, bizidunak, zentzundunak, adimendunak...

Sei egun orreik artzen dauzanean, erriari zerbait adie- razo nai dautso: Lenengo ta bein munduaren egillea Jaungoiko bakarra dala, ori zelan egin eban zeaztu barik eta "zapatua" zaindu egin bear dala, atsedene- gun lez artuta.

Ez dago ba idazteuna ezertan be jakingaien aurka, osotu bai egiten dauz geure buru argiak eta fedea- k diñoanagaz eta Jaungoikoak berak agertu gura dausku- nagaz.

LETONA'k



# AITA ELLAKURIA (Taiwan'en)

## NOR DAN

Portugale'teko Bizkaitarra. Orain 22 urte joan zan misiolari Formosa'ko Taiwan'era eta an alkargo-zale lez egin eban lan aundia eta langileen artean entzute ta nagusitza aundia daukaz.

Baiña bere begiratzean eta izakeran ez dau olakorik agertzen. Ain da eratsua ta apala! Baiña Taiwan'en Bizkai'tar onen ospea ta garrantzia geroago ta aundia-goak dira eta ango jaurlariak Asia'ko Walesa barri baten antzera salatzen dabe.

## NORANTZA DOAN

Josulagun onek ondo daki norantza doan. Berak gura dauana, eta orrelan agertzen dau edonon eta edonoz, ez da eskubideak lortzeko Jaurlarien menpeko sindikato bakarra indartzea; berak nai dauana, Ebanjelioko eritxiak langilleen artu-emonetara sartzeko langilletza eratzea da, eziketa ta azterketaren bidez gero ta geiago egitarauak aldatzen dirala.

Nazaret'eko Jesus'ek iragarri eban gizarte barriaren elburuak, lantegiz baterik dagoan Taiwan urian sartzeko, indarra zabaltzen dau Aita Ellakuriak buruzagien eta lagilleen alkargoaren erdira.

Ekin eta ekin Jesus'en Barri Ona agertuz, Josulagun onek zortzi lantegitan "Rerun Novarum" idazkitik azi eta gaur arte Eleizeak irakatsiak oiñarri dirala ezi gura dauz oiñarriko langilleak eta alkargoetako buruzagiak.

## ALKARGO EDO SINDIKATOAK

Sindikatoa zer dan —diño berak— era bakan eta egokiz ikas-aldien bidez argitzen dogu, egunez eta gabaz, batez be Taipei uri-buruan egiten dogun lanean, eta aterri aretako toki baztertu eta ezkutuetan, orrelan langintzako artu-emonak bigunagoak eta gizatiagoak izan daitezcan.

Legezko itaunketea, politika-izaerarik ez daukon lenengo errian zabaldua, langilleen eskubideai begirunea emoteko argia izan bear da eta eurai laguntzeko izan bear dabe gure ekintzak.

## ASKATASUN BARIK

Aukeramenik edo askatasunik ez dagoan erri baten, zuzentasunik egiten ez dan erri baten, ez dago beste biderik legea baiño.

Baiña ba-dago beste toki bat, langilleai eurak erra-zoia dauken ala ez agertzeko. Zori txarrez alegin guztia or amaitzen da. Guk ostera, azkeneraiño jarraitzen eta eutsiten dautsegu, jazoerak epaitegira eroateraiño.

Euki ete dau erri onek iñoiz onelango kezkarik edo artegatasunik?

Bai. Beti artega eta kezkatu bizi izan da.

Taiwan txiker au salze ta eroste ugaritasunean munduko seigarren laterria da: Itxas ontziak zeatuten lenengo, zenbatzaille edo konputadorak saltzen bigarrena, Japon'en urrengo, eta bigarrena baita diruaren eskuarteko erantzunean.

1984n.urtean munduko amarretatik batek erosten ebazan Made in Taiwan idazkia euken tramankuluak. Lareun notiñetik batek daroa ango, lurraldean egiña dan aterkiña eta munduko tenis-zaleetatik euneko berrogei ta amarrek darabillez ugarte txiki aretan egindako jostailuak.

## BALDINTZAK

Dirutza-giro onetan, alkargo eta sindikatoetarako askatasunik ez daukan erri baten, nagusien buztarriean, oporraldiak galazota dagoz eta guda-legea da nagusi.

Josulagun Bizkaitarrak irasi dauan erakundearen tankerak korapillotsua beti izan da artega ta bildurrez begiratu.

Jaurlaritzak ondo daki Ellakuriak ezi dauzan berreun buruzagi agertzen dirala urtero eta amasei urtean milla ta berreun sindikalari gertatu dirala eta ogei ta amar milla langille baiño geiago.

Orregaitik, agintarien aldetik eragozpen asko izaten dauz, ondo dakielako burdiñezko ziria sartzen dala langintzara eta ziri ori ezin kendu izango dabela, eta gaiñera, indar, entzute, ospe aundia artzen doazela.

## JAURLARIAK ARDURAZ

Sindikatoak ez dira beti izan jaurlaritzan arduragari, arein eragiñak eta joan-etorriak orain artega jarten dabaz. Ori orrelan izanik, Ellakuriak edo Josulagun orregaz dabi!tzanak, lenengo baimena eskatu bear izaten dabe eta gero, ikasturtea amaitzen dabenean, egin dako lanaren barria emon. Eta orrelan 1983'an itziduraren agintea etorri arte.

Ellakuriak berak esaten dau: "Lech Walesa'ren antzera langilleak opor-aldira bultzatzen dodazela salatzen dabe; euren eskubideetan langilleak sendotu eta jaurlaritzaren alderdikoak ez diranak deitzen dodazela ber baldiak emoteko diño".

Taiwan'go CIA'k azterketa egin eutson jokabide onei eta eurentzat ez zala ona ikusi eben.

## GIRO ZABALAGOA

1985'ean zabaltasuna emotea erabagi eben, baiña ez ori eurak onartzen ebelako, erriaren babesba ta laguntza lagilleen alde egozala ikusten ebelako baiño. Orrelan, CIA'ren izen txarra sortzea kentzen zan.

Batez be agintariai ez jake ondo etorten Batikano'gaz asarre ta aurrez aurre agertzea. Batikano da izan be Europa guztian bakarba Taiwan eta Aprika ta Ameriketako beste emeretzi lurralde buru-jabetzarako onartzen dauzana.

Al izango ba'lebe —diño Josulagunak— jaurtiko nindukee, baiña sakonean ba-dakie, Walesa langoa nazela salatu arren, nik ez dodala nai Alkargo barri baten buruzagi izaterik, ba-dakie nik ez daukadala Europa ta Amerikatarrakaz zer-ikusirik eta ba-dakie-gaiñera, Gotzaiñen baimena ta laguntza daukadazela. Len osterba Eleizeak ez eban ekintza au ondo ikusten.

Aita Ellakuria lendik zan Askatasunaren Teologia'ren irakasle ona eta nagusia: Kristiñauak okerkeriaren aurrean salakuntza otzana baiña sendoa egin bear dabe.

EGILUZE'k

## IDAZLEAI OARRA

Adiskideok:

Aspaldion ZER gure aldizkari au osotzeko idazlanak urritu egin jakuz. Orretarako zio bat, zalantza barik, idazle jator eta ugari batzuren eriotzea izan da. Ez aitzu epe labur baten barruan joan jakuzala, esaterako D. Klaudio ta Basajaun.

Alegin aundiagoa eskatzen dautsegu ba gure idazleai idazlanak bialdu dagiskuezan. Eskari onek erantzun ona izango dauala uste dogu.

IDAZKOLAKOAK

## UDABARRIAREN ERIOTZA

Etorri egin zan, beti etortzen dalako  
txaropendun soñeko garden, dizdikorrez,  
goizean goiz, txori txintadapean, alako  
biotz-poza damoskun janzkera alaikorrez.

Baña, itunik ta ixil entzun izan neban  
xorien txintots, abesti tamal, mingarria,  
berarizko malko, negargura latzgarria  
ortu-arazoz nire begi, saiets artean...

zadia illun-illun, baltzago nekuzan  
lana ozkil, negu gorrirantza makurtua,  
eguzkia makal, txepel, lañopean sartua...  
udabarritar aztarnik iñun ez-bailitzan.

Udabarri asiera zimirtsu ta baltzean,  
beren esku gaixoti, esku dardaratiakaz,  
bizitz ate joka dabil esku zarkituakaz,  
andar bako orri-sortze aul, nekezean...

taundu neban nik arratsaldearen margoa  
beren egimenezko margoa a ete zan ...  
—Eta erantzunik ai! ez neban jazo izan,  
ori zelakoa zan ta, nundik norakoa!

Zugaitzak jantziz, soñekotuak ez zegozan  
ez, beren betiko jaiegunezko margoakaz.  
endia itzal zebillen begi ixillakaz,  
txarokizun itun utsalezko ezbaian.

Orduan neure besoeri itxi egin neutsen  
gogoz, etsipenduta, be-alderantza jausten;  
a, oldoztu neban: Ai!, dirudi orain, emen  
zken-udabarri bat ari dala bai, sortzen!

Bijar zugaitzak, dan-danak, ill egingo dira  
a, ibaien oroitzapen triste bat besterik  
z da geldituko emen, oñazez beterik,  
berka legor, uts, dezabatuen arira...

eta, Udabarri izen zoragarri ori...  
gure kondairatik baztertua izango da  
ta, dezabatua ain urtearo gelgarri!  
txaropenaren sorburu eder, izantza.

ta, gizona bera da bai, errudun bakarra,  
origaitz ororen txarki sortzaille basati;  
zadiaren erailtzalle anker ta, izurri,  
utserre arteko sasi-gizon ain makarra.

MUNIATEGI-tar SABIN  
(1889)

AITA SANTI ONAINDIARI OMENALDIA  
LARREAN, 1989<sup>o</sup>gko. MAIATZAREN 13<sup>n</sup>

— 1 —

Zar eta gazte, gizon eta andre  
batu gara gaur Larrean,  
Aita Santiri omenaldia  
eiteko danon artean;  
Gogoz ta arduraz erabagi dau  
Udalak batzar batean  
kale oso bat jartzea emen  
bere oroiz ta izenean.

— 2 —

Guda-aurretik, guda ostian  
Jainkoaren izenean  
zoli ta gogoz ibillia da  
arimen alde lanean;  
Euzkadi eta Euzkerarekin  
maite-minduta osoan,  
sutsu ta gartsu ekin dau beti  
eten bagaka arloan.

— 3 —

Biotz gartsudun, gogo argidun,  
euskal idazle, zolia  
bertsoz eta itz lau z gai egekiak  
erabilteko trebia;  
esakun sakon, garbi-zorrotza,  
izkera legun-bizia;  
goiko maillatan dakusgu beti  
Aita Santi Onaindia.

— 4 —

Asko zor dautso Aita Santiri  
gure Euskera zar-maitiak;  
asko zor baita maxu-bezala  
gaurko euskal idazliak;  
orregaitik gaur eskiñi dautsa  
omenaldi au erriak;  
ta orregaitik bildu gara gu  
bere lagun-aiskidiak.

— 5 —

Txalo beroak ta zorionak  
Aita Santiri ugari,  
agertu bait da ainbat urtetan  
euskal arloan dirdari;  
zar ta gazteak artu begie  
irakasle ta gidari;  
ta goiko Jaunak emon begio  
zeru ederra lan-sari.

GOIRIA



## AITA SANTI

Egun gogoangarria Onaindiatarren etxerako, Santia-  
no mutilla biziz eta osasunez etxera eldu zana. Aitak  
ta amak eta Egilleak parte artu eben sorrera orretan.  
Eguzkiak dizdizera ederraz argi egin eban egun zoraga-  
rian ta Jaungoikoak beste iñork ez ekian nor etorri  
an Euskalerriko Amorotora.

Gurasoak euskaldunak, izkuntza ederrekoak ziran  
de usaiñez, gari metaz, nabo orriz, sekula-bedar orle-  
iz inguratuak. Izadiaren eder ori, izan bere, baratz  
paroa zan Amorotoko mutillak aitaren ta amaren itu-  
ritik izkuntza joria artzen asteko. Ederrak ederra sor-  
zen dau ta ikusten dan bikaintasunak inguruak edertu  
ta lagunak ezi ta egokitu egin oi ditu nor bere duinta-  
unerako.

Gero ondoren, begiak itzartu ta burua argitukeran,  
euskal mundu barri baten sartu zan Larrako konben-  
tuan. An aurkitu zituan erri gizonak, euskal maisuak  
Karmeldar praille-lekaideen artean. Emen, emon bear  
utsan astiñaldi ta bultzada on bat barruan biztuta eukan  
guzto txinparta ta izkuntza-garrari. Euzko erriaren sena  
ta bere izkuntza jakintsua ezilkortu egin bear ziran.  
Gizona izateko, izan be, norbere erria aizatu egin bear  
za, semeak eta auzoak ezagutu dagien.

Aita Santik, gazterik, artu eban erriaren deia. Dei  
sinikorra zan. Alderdi guztietatik etsaiez inguratuta eku-  
tan ta bere bizia ta jakituria elerik ederrenean eskeini  
autsozan, maite eban ama lurrari. Gaztetasuna zezer-  
arako da ta ez egoan geldi egoterik. Era batera ta  
bestera, olerkiz ta iz-lauz, gogoz, asi zan bere pentsa-  
mentu ta gurariak gure erriaren alde zabaltzen. Ez  
dago nekerik, ez dago atzerarik, dana emon bear asko  
maite dan erri ta izkuntzari.

Urriñetako jakitsuak eldu ziran gure bazter orlegi  
ta ederrera. Ementxe aurkitu eben gizadi leiñargi ta  
jakitsuaren izkuntza arrigarri ta mendiz, zelaiz ta base-  
ri zuriz apaindua ta Onaindia gaztea, ortxe, ebillen  
buru ta biotzez, gogo guztiagaz, amaren bizia indartu ta  
derragotzen. Sasoia ta kemena, dana eukan beragaz  
atean, bizia artu eban lurtean maiatzeko zugatz sagar  
ora zuriz betearen antzera.

Etorkizuna, irriparez, eukala irudian; bera ametsez  
erriari begira ta erria berari adi alkarren poztasunean.  
Izadiaren ederrak ta euzko prestutasun ta odolgarbita-  
unak bultz eragiten eutsen Euskalerriarren aldeko lane-  
a. A zan gizadia, a zan lurra, a zan giroa, danak euskal  
gi biurturik, bizi barri bat sortzen egoan gure zentzu-

dun enda-erri urtez milleetakoan. Ez zan ametsa, egia  
zan gure erriaren bizia Aita Santiren biotzean, ondo,  
sentidu ta oiñarritua.

Era onenean ta gogo guztia egiari ta zuzentasunari  
eskeinuta eukan egunetan, geroak betirako, ondo beztu-  
ta itzi daben guda ankerra eldu zan gure lurretara.  
Euskaldunak erria zaintzea erabagi eben ta Aita Santi  
beste askoren artean mendietan ibiliko zan euzko guda-  
ri sinismendunen abade laguntzaille.

Ainbeste ezbear, su, eriotza ta mutil on arei lagun-  
du ondoren guda amaitu zan. Baiña gure erri maiteak  
kurutza gogorra izan eban ondoren bere. Ta euren  
artean Aita Santi be espetxerik espetxe erabili eben iru  
urteren buruan. Baiña zapalketa orrek ez eben Onain-  
diaren gogoia makurtu. Espetxeko urteetan auzoko izkun-  
tzak landu zituan, gizon legez, altasun geiago artzeko.  
Ta danen artean bere biotzean bat eukan nagusi: euskera.

Guda ostean, lengo bizitzaren jarrai, Jesusen Barri  
Ona zabaldu bear eban Euskalerriko mendi ta zelaietan  
zear jentea argitu ta itxaropenez poztuaz. Ta ortarako  
tresna egokiak itza ta lumia zituan erririk erri ta papelik  
papel egia erriari aukeztuaz. Bakoitzak berak daukana  
emon leio urko lagunari ta Aita Santik betiko biziaren  
argia ta euskal kultura emon eutsazan arbasoen jato-  
rrizko erriari. Kristiñau sinismena ta gurasoen erri zale-  
tasuna biak bat eginda eukazan bere nortasunean, ta  
biak egi sakonenak diran ezkeroz, ezin geldi egon eikean  
Egilleari zor jakona ta erriari bere berea daben izkuntza  
zabaldu ta edertu barik.

Bañak soloetan egoten dira, baiña kezka, maltzurke-  
ri ta zapalketak gizonen biotz-buruetan. Euskeraren etsaiak  
gorrotoa ta amorroa eutsoen izaki ain eder oneri. Ori  
dala-ta, izkuntza lantzaileak be jazarpenduak izan bear  
eben. Emen sortzen da ba burruka barria. Goizetik eta  
gabera, ekiñean ariko zan Aita Santi ta polizia be ondo-  
ren nundik ete ebillen zaintzen, judioak Jesusen ondo-  
ren ibili ziran antzera. Emen, agertzen da euskal gizon,  
idazle errimeka, artu eban bideari jarraitzen gau ta egun  
neke ta gaiztasunen artean.

Jesusek berpiztuagaz, eriotzea menperatu eban lez,  
Aita Santik ekinagaz orraztu, edertu ta aberastu dau  
euskera ta beste askok bere inguruan, ordu gaitzetan  
lankide izan jakozan, ta gaur pozez, gogoratzen ditue  
burrukaldi azpergabe arek.

PAULIN

## BAKEA

## (GOIRIA)

Danak gura dabe bakea. Gizadi guztiaren guraria a. Danen elburua. Gizonaren biotzak bakea bear-bearrekoa dau. Ez da, ezin izan leiteke zorionik bakerik barik. Maitasunak senar-emazteak, anai-arrebak, adis-ideak bat egiteko egin ebazan kateak samin eta oiñakateak biurtzen dira bakerik ezpa'da. Bakea da gizartear oriona damotson oiñarria. Bakeak bakarrik egin leikez oriontsuak gizonak. Indarrak, diruak, jakintzak ez dabe oriontsu egingo gizona bakerik ezpa'dau. Egizko zoriona biotzean sortzen da ta biotza bakez ezpa'da, ezin san zoriontsu.

Batzarretan-da gizonak dagiezan itunbeak-eta ezin eike mundua zoriontsu egin. Ezin ekarri zoriona gizartera. Bake au azalekoa da. Putz txiki bat naiko da usteko. Biotzak baketu bear dira. Biotz-barnean erein ear da bakea.

Gudariari izkilluak kentzea ez da naiko gizartean bakea ezartzeko. Gorrotoak menderatu ta kendu bear dira. Gogoan euki dagigun: gizonak habeak egin leikiez batzarretan eta itunbetan. Ez da naiko; biotzetan egin ear dira. Bakeak bere oiñarria biotzean ezpa'dau, banan-uta jarraituko dabe gizonak; aurrera egingo dabe burruak gizonen artean. Gorrotoak jarraituko dau agintzen.

Benetako bakeak agindu dagian gizartean Kristoren irakatsiak irarri bear dira gizonen biotzean, eta gizon akoitzean. Goinaitasunak agindu bear dau gizon danetan.

Batez be zuzentasunak agindu bear dau gizartean, era baita bakearen len oiñarria. Zuzentasunik ezpa'da, ziña bakerik izatea munduan.

Indarrak agintzen ba'dau, gizonen eta errien eskubiak ontzat artzen ezpa'dira, ezin izan bakerik munduan.

Eta gaurko gizartean ez da bakerik. Ez da zorionik. Gorrotoak, burrukak, eztabaidak, illetak irailtzak, lapu-etak, zuzengekeriak... zapalketak izango dira ugari. Zuzentasunik ezpa'da, alkar-maitasunik be ez da. Gizota pizti da gizonarentzat. Maitasunik-ezean dago iturrik sakonena. Munduak, gizarteak ez dau betetzen Kristoren agindua ta ortik sortzen dira zoritxar guztiak. Ortik bakerik-eza.

Maitasuna aaztuta dago ta anai-tarteko maitasuna ear-bearrekoa izan gizarteak bakea euki dagian.

Kristok maitasuna agindu ebanean danentzat jarri ban; adin eta mende guztientzat; orobat erri guztientzat. Beartsuentzat bai, baiña aberatzentzat be bai. Menekoentzat bai, baiña agintarientzat be bai. Danentzat.

Ebanjelioa baztertuta dagoan artean, alperrikoak izango dira gizonak artzen dabezan erabagiak. Alperrikoak agiezan itunbenak. Indarrikbakoak.

Gizonak zoriontsu bizi gura ba'dau, bear-bearrekoa dau bakea ta aurrerapiderik lortu gura ba'dau, bakerik ezpa'dau, ezin izango dau.

Dirua, ospea, aginpidea... utsa dana bakerik barik. Kristoren ebanjelioa ontzat artzen ezpa'da, Kristoren

lege ta aginduak zapaltzen ba'dira, izlilluak aginduko dabe. Indarra izango da nagusi.

Baiña auxa aitortu bear: ebanjelioak bakarrik ekarri leike bakea... Kristoren legeak agindu ezin alperrik izango gizonen itzak eta itunbeak.

Kristoren ebanjelioak eta berak bakarrik salbatuko dau gizartea.

Berak bakarrik ekarriko bakea

Jainko Aitak bere Semea bialdu eban lurrera. Seme orrek mandatu bat ekarri eban gizon guztientzat: *BAKEA*. Jainko Semea Belenen jaio zanean aingeruak be bakea abestu eben. Bakea Kristoren erreñuaren ikurra da. Beraz kristauna be bai. Bake-Errege diñotso Isai Igarleak Mesiasi. Bakea ekarririk sartu zan Jesus munduan eta bakea itxirik joan mundutik. Onela mintzatuko jake bere ikasleai Nekaldi-Gabaz. "bakea izten dautzuet, neure bakea damotzuet; baiña munduak emoten dauana bezalakoa ez".

Agindu au itxi eutsen Jesusek bere apostolui: "bake-ereille izan zaiteze."

Agindu ederra itxi eutsen Jesusek bere ikasleai.

Guztiok gura dogu bakea, baiña askok ez dauke bakerik.

Bakea bitarikoa izan daiteke: gorputzarena ta arimarena. Biek bear-bearrekoak dira.

Bakeak eragozpen bi daukaz XII'grren Piores iritxiz: guzurra ta aierkundera.

Bakeak zintzotasuna eskatzen dau. Bakea gura ba'dogu, zintzoak izan bear gara. Zintzoak geure buruagaz eta zintzoak besteakaz. Zintzoak batez be Jaungoikoagaz.

Jaungoikoa atzipetu daikegula uste dogu... alperrik... geure burua atzipetutzen dogu ez Jaungoikoa.

Jaungoikoagaz zintzotasunik ezpa'daukagu, ezin izan bakerik gure arimak. Ar-emonetan zintzotasunik ezpa'da, ezin izan bakerik gizonen artean.

Irribarrea aurrean... txeratsu... itz onak... eta atzetik... bera gugandik urrin danean mormoxka... gaizki esaten... ezin bakerik... zintzotasunik ez dagoalako.

Zintzo jokatu bear da, bakea gura ba'da. Parkatu egizu ta bakea izango duzo barruan eta bakea gizonakaz. Gaurko munduan ez da bakerik... zintzotasunik be ez dalako. Gaur ez da bakerik... begira... urrin ez joan... geure artean... gudak... Aprikan... Sorkaldean... ainbat tokitan... ez da zuzentasunik... zintzotasunik... Indarrak agintzen dau. Ez da bakerik... mundua kilikoloka... irikitik erriak... irikitik biotzak. Bestea zapaldu... bestearen eskubideak ukatu ta zapaldu... erriaren eskubideak be zapaldu.

Ekaitza... illunpeak alde orotan... Zabaldu begioz zintzoki munduak ateak bakeari.

Bakez bizi danakaz.

**JUANTXO-TXIKI JAINKOAREN SEME (24)**

*Orijenes*, antxiñako kristau-idazle famatuak ba zuan semetxo bat seaskan. Etxeratze bakoitzean, seaskara urbildu eta bere Juantxo-txikiri musu bat emoten ei eutson bular-gaiñean; arnasak gora eta beera zebillen bulartxoia Jainkoaren egoitza bait zalako.

Jainko altsuaren etxe-bizitza, umetxoaren biotza. Eder da. Mezatarako kalizak olio santuaz igurtzen diran antzera, igortziko dau apaizak Juantxo-txikiren bularra. Olio santu berberarekin. Kalizen antzera Juantxo-txiki be Jainkoaren gorde-leku izango da bataioaren bitartez.

\*

*Jainko-biziaren azia* bere bataioan artuko dau Juantxo-txikik. Azi txikia, azi guztiak diran bezin txikia. Azia, ordea, azteko da. Azia aziko da bere elbururaino eta bere elburua lorea da eta lorearen ondorengo igalia edo fruitua.

Bataioko azi orrek Betiko bizitzarako lore eta fruituak emongo ditu.

Azi orixe da basamortua bizi-arazten dauen ura, ur bizia. Jainkoaren seme egiten gaituena eta, seme bagera, oiñordeko be bai; Betiko bizitzaren oiñordko.

*Elburu orretara irizteko* bear diran indarrak berekin ditu azi orrek. Elburu ori mundu onetan santutasunean dago. Kristoren Gorputz-mistikoaren zati osotuak bear dogu izan.

Bide orretan zenbat galtzeko arrisku pasa bear dituen azi orrek bizitan zear! Zenbat gau luze eta negu gogor...! Gurasoen ardurak eta gurasoen otoitzak bearrezkoak ditu umetxoak; baita Espiritu Pozemoi!learen laguntza be danen aurretik. Juantxo-txikiren libertadea dala medio. Bere naiak be esan-bearrik badau.

\*

*Eginbehar ederrik* badau gurasoak Juantxo-txikiri buruz: gorputza azi, sentimentuak edertu, adimena argitu, gogoia ondu eta sendotu. Baiña, umetxoa kristau dan aldetik, badau beste agerkera bat be: bataioren bidez ereindako aziak bere elburua lortu dedin, gurasoen laguntza bearko dau.

Lan ederrik iñon bada, umeak azi eta ezitzea lanik ederrena. Negozioak eta lanbideak dirala-ta, zelan aztu dozu Juantxo-txiki, zure negoziarik onena, zure lanbiderik ederrena...!

Erreza ez dala? Ortan arrazoia dozu. Erreza ez da. Baiña, zure bizitzan gauza errezak ez diran makiña bat egin dozuz. Zure maitasun-barruan billatuko dozuz bear aiña indar eta argi. Goi-goikoak be ez dautzu faltako lan eder orretarako.

ARRINDA'tar ANES

**OMENALDIA**

Uztaillaren lenengo egunean, larunbatez, Euskerazaintza-Euskerazaleak Alkarteak omenaldia egingo dauzoe Euskerazaintzaren Zuzendari dan AITA LINO AKESOLO'ri Dima bere errian.

Egun alaia izango da

11'tan Mezea

12'etan Jakintza-ekiñaldia

• Ondo etorria

• Aita Lino lekaidea (Arostegi'tar Luis'ek)

• Aita Lino Aztertzaillea (Etxebarria'tar J.M.'k)

• Aita Lino idazlea (Onaindia'tar Santi'k)

• Aita Lino espetxean (Dañobeitia'tar Kepa'k)

• Gaztetxu batek Aita Lino'ren idaz-lan labur bat irakurriko dau

13'30'ean: Aita Lino'ren Jaiotetxean oroitarria ipiñiko da

14'etan: Bazkaria OBA'ko Jatetxean (Dima'n).onetarako txartelak banatuko dira.

# Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

## Bizkaia beti.

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CA~A IJE AHORROS  
**VIZCAINA**